

Martxoaren 8an ez du grebarik egingo Eusko Jaurlaritzak

GASTEIZ • Eusko Jaurlaritzak ez du parte hartuko martxoaren 8rako iragarrita dagoen greba feministan. Josu Erkoreka bozerra-mailearen arabera. Egungo desoreka konpondu beharra dagoela esan du Erkorekak, eta zehaztu du Jaurlaritza «berdintasunarekin konprometituta» dagoela.



Alegazioak aurkezten, atzo. JM./ARP

2.734

AHT-RAKO ALEGAZIOAK

Sakana Trenaren Alde eta Sustrai Erakuntza taldeek AHTaren aurka Sakana bildutako 2.734 alegazio aurkeztu zituzten atzo Espainiako Gobernuak Irufean duen ordezkartzan. Bi taldeek AHTaren eredu gaitzetsi dute, eta egungo azpiegiturak hobetzeko eskatu. Gasteizen ere aurkeztu dituzte helegiteak.

Hitzartuz prozesua martxoan abiatuko du GuraSOSek

DONOSTIA • Hitzartuz prozesua aurkeztu zuen atzo GuraSOS plataformak, ELA, LAB eta CCOO sindikatuekin batera eginiko agerraldi batean. Hondakinen plana kontsentsuz adostu asmo dute, eta prozesuak bi fase izango ditu: informazioan eta eztabaidan oinarritutako da bat, eta herritarren parte hartzean bestea. Eragileak bildu nahi dituzte.

Bi anaia atxilo, haur pornografia edukitzea egotzita

BERA • Bi gizonetako atxilotu ditu Espainiako Polizia Beran (Nafarroa), etxean haur pornografia edukitzea egotzita. Espainiak, AEBetako eta Hego Amerikako beste pedofilo batzuekin harremana izatea ere leporatu diete.

Gasteizko udaltzainek greba amaitu dute, udalaren proposamena onartuz

Langileen %65ek babestu dute • Taldea handituko da, eta 600 euroko gehigarria jasoko dute

Ibai Maruri Bilbao

Bozkatzera joan diren 250 udaltzainetatik %65,5ek onartu dute Gasteizko Udalak egindako azken proposamena. Hala amaitu da ia lau hilabete iraun duen lan gatazka. Iazko urriaren 31tik egin duten arretazko greba bukatu da aldi berean. Gabonetan ere adostu zuten beste akordio bat sindikatu eta udal ordezkariak, baina orduan langileen %70ek aurkako botoa eman zuten.

Herenegun egin zien Gorka Urbaran alkateak azken proposamena sindikatuari. Besteak beste, udaltzainen kopurua handituko du, lan eskaintzen eta promozioen bitartez. Gainera, antolaketa arazoak konpontzeko prozesu bati ekingo diote. Era berean, udaltzainek 600 euroko ordainsari gehigarri bat jasoko dute urtean, lan kargagatik. Familia kontziliazioa erraztu ahal izateko, jai hartzea ezinezkoa duten egunak hamazazpira murriztuko dizkiete. Txanda bakoitzean gutxieneko zerbitzuak bermatuko dira. Langileen gehiengoak onartu duen arren, sindikatuak ohartarazi dute ez direla aldarrikapen guztienak bete, eta oraindik «xehetasunak» falta direla negoziatzeko.

Urbaran «pozik» agertu da, «azkenean» sindikatuak «zentzuz» jokatu dutela iruditzen



Udaltzain bat isuna jartzen, Gasteizen, joan den azaroko irudi batean. DAVID AGUILAR / EFE

zaiolako. Baina hilabeteotan bi aldeen arteko harremana ozpinduta egon da. Batez ere, arretazko grebak eragin zuen alkatearen haserre. Aurreko urteko epe berean baino sei aldiz isun gehiago ipini dituzte lau hilabeteotan Gasteizko udaltzainek. Erne sindikatuak ukatu egin du halakorik egon dela; 40 udaltzainen kontua izan dela esan du. Baina alkateak «gasteiztarrek bahituta» edukitzea egotzi die behin baino gehiagotan. Gatazka hauspotu zuen Errege magoen desfile egunean edo inauterietako desfilea egin

behar zen larunbatean bat-batean 30 polizia gaixoaldi baimena hartu izanak ere.

Oposizioak pozik hartu du greba bukatu izana. Baina alkateari egotzi diote orain arte ezer egin ez izana. PPko Gustavo Anteparak lan eskaintza publiko bat behar

dela adierazi du, akordio horrekin arazoa «benetan» konpondu nahi bada. EH Bilduko Miren Larriñonek salatu du «gasteiztar guztiek diruz ordaindu» dutela alkatearen jardun politiko falta. Eran-tsi du espero duela udala «arazoei aurre egiten hastea».

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

IRAGARKIA

AGINDUA, 2018KO OTSAILAREN 20koa, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERAKO ONARPENA EMATEN BAITZAI O LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN BERRIKUSPENARI BURUZKO DOKUMENTUARI.

Gaurko egunez ondoko xedapenak dituen Agindua eman dute:

Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenean dokumentuari. Gidalerro horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren.

Bigarrena. Berrikuspenean dokumentua jendaurrean jartzea, partikularrek eta elkarte interesdunek egoki irizitako alegazioak egin dituzten, bi hilabete epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bihar-munetik aurrera.

Hirugarrena. Jendaurreko sasoiak dirauen bitartean, lurralde-administrazio publiko interesdunei entzualdia egiteko sasoi hasten da, bi hilabete epean egin dituzten nahi beste ohar eta iradokizun, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Laugarrena. Berrikuspenean dokumentuaren Ingurumen Azterlan Estrategikoa jendaurrean jartzea eta eraginpeko administrazio publikoetara lehenago kontsultatu zaien interesdunei kontsulta egitea, 45 egun balioduneko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horietan, berrikuspenean dokumentu hori guztien eskura egongo da, aztertua izan dadin, batetik, www.ingurumena.eus web-orria, bestetik, irekia komunikaziorik gabeko kanalean (www.irekia.euskadi.eus), eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan: Eusko Jaurlaritza

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saia
Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berronaratze Zuzendaritza
Donostia kalea 1 - 2. solairua
01010 Vitoria-Gasteiz

Agindu hau ezin da errekurritu, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenean onartzeko prozeduraren barruko izapide bat baita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 20a.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA
Ignacio María Arriola López

URRE
TXINDO
RA
IKAS
TOLA

URRETIXINDORRA KOOP. ELKARTEAREN EZ OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Estatutu Sozialen 22.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, Urretixindorra Koop. Elkartearen Kontseilu Errektoreak, Ez Ohiako Batzar Nagusi-rako deialdia egingo du. Ez Ohiako Batzar Nagusia, 2018ko martxoaren 14ean egingo da, 18:30ean lehen deialdian, edo hala balegokio 19:00etan bigarrean, elkar-tearen egoitzan Martin Barua k/ 21ean eta honako hau izango da

GAIZERRENTA

1. Eraberritze lanei dagokien informazioa
2. Galde-eskak

Bilbon, 2018ko otsailaren 20an.
Lehendakaria, Josu Telleria Uriarte

GI-3871 errepeidea 0+700 eta
1+400 KPen artean hobetzeko
proiektua (Arama-Aitzaga)
(1-ML-54/2017).

2018ko otsailaren 28ko
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
(42 zk.), argitaratu da GI-3871
errepeidea 0+700 eta 1+400
KPen artean hobetzeko
proiektua (Arama-Aitzaga)
(1-ML-54/2017) onartu dela
dioen iragarkia.

Iragarkian, hartu beharreko
ondasun eta eskubideen
zerrenda zehatza eta banakatur
ere ageri da.

Donostia, 2018ko otsailaren 28a.

Gipuzkoako Foru Aldundia
28ko Arazoak
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Infraestructuras Vías